

## Kanala

Gure zerbitzua emakumeak gauetan etxera modu seguruan eramatea denez, funtsezkoa da gure bezeroengana modu egokian heltzea. Horretarako, komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak ondo planifikatzea beharrezkoa da, gure balioproposamena segmentu guztietara hel dadin.

Lehenik, komunikazio-kanalek gure bezeroekin harreman zuzena izateko balioko digute. Sare sozialen bidez (Instagram, TikTok eta X batez ere) informazioa zabalduko dugu, gure zerbitzua noiz eta nola erabil daitekeen argituz. Marketin digitalak garrantzi handia izango du, gazte gehienek kanal horiek erabiltzen dituztelako eta gure mezuak modu azkarrean heltzen direlako. Gainera, herriko jaietan kartelak eta QR kodeak jarriko ditugu, jendeak aplikazioa zuzenean deskargatu ahal izateko eta emakume gehiagotara heltzeko arinago.



Bigarrenik, banaketa-kanalak kontuan hartuta, gure kasuan kanal laburra erabiliko dugu, hau da, bitartekaririk gabe zuzenean gure bezeroengana iritsiko gara. Aplikazio propioa izango dugu, eta bertatik egingo da zerbitzuaren erreserba eta ordainketa. Horrek aukera ematen digu prozesua kontrolatzeko, prezioak eta eskaintzak momentuan eguneratzeko eta bezeroari esperientzia argi eta erraza eskaintzeko. Ez dugu behar garraio-enpresa edo bitartekaririk, funtsezkoa iruditzen zaigu guk azaltzea eta ez kanpoko beste edonork gauzak apaindu ahal dituztelako eta era desberdin batean azaltzea gure gustukoa ez dena.

Azkenik, salmenta-kanalak gure zerbitzua non eta nola eskainiko dugun zehazten dute. Salmenta guztia online egingo da, gure aplikazioaren bidez; horrela, erabilera erraza eta azkarra bermatzen dugu. Ez dugu denda fisikorik izango, ez duelako zentzurik gure negozio ereduarekin, baina bulego bat izango dugu. Hala ere, salmenta osteko zerbitzua eskainiko dugu aplikazioaren barneko arreta-gunearen bidez: erabiltzaileek arazoak, kexak edo objektu galduak jakinarazi ahal izango dituzte, eta 24 orduren buruan erantzuna jasoko dute. Guretzat oso garrantzitsua da bezeroak seguru eta entzunda sentitzea. Aplikazio horretan informazio dena agertuko da,

gauzak ondo azalduta eta zelan egin behar den guztia pausuz pausu. Arazoren bat egotekotan jendea egongo da bulegoetan arazo horiek konpontzeko. Laburbilduz, gure produktua eta balioproposamena bezeroengana heltzeko, komunikazioa sare sozialen bidez eta kanpoko publizitatearekin egingo dugu; banaketa zuzena izango da gure aplikazio propioaren bidez; eta salmenta online kudeatuko da, arreta pertsonalizatua eskainiz. Kanal horiek guztiek gure helburua betetzen lagunduko dute: emakumeek gauetan etxera modu eroso, azkar eta seguruan iristea.